

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	MIKROPIGMENTAZIO-TEKNIKAK APLIKATZEKO EKIPOEN, INSTALAZIOEN ETA PRODUKTUEN PRESTAKETA (zeharkakoa)	Iraupena	30
		Berariazkoa	
Kodea	UF1158		
Lanbide-arloa	Irudi pertsonala		
Lanbide-eremua	Estetika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Beltzarantzea, makillajea eta depilazio aurreratua	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Mikropigmentazioa (zeharkakoa)	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Mikropigmentazio-teknikei buruzko aholkularitza eta haien aplikazioa (zeharkakoa)	Iraupena	90

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0067_3 MIKROPIGMENTAZIO-PROZESUAK EGITEA ETA GAINBEGIRATZEA gaitasun-ataleko LB2 lanbide-burutzapenarekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Teknikak aplikatzeko ekipoak eta baliabide teknikoak aukeratzea eta prestatzea, mikropigmentazio-prozesuko faseekin erlazionatuz.

EI1.1 Hauei dagokienez mikropigmentazioan aplika daitezkeen araudia —indarrean dagoena— eta segurtasun-neurriak eta arrisku higieniko-sanitarioak prebenitzeko neurriak azaltzea: establezimenduak, instalazioak, altzariak, aparatuak eta gehigarriak.

EI1.2 Mikropigmentazio-prozesuetan erabiltzen diren tresnen, gehigarrien eta elementu osagarrien ezaugarriak identifikatzea eta deskribatzea.

EI1.3 Gehigarriak, aparatuak eta baliabide teknikoak hautatzeko irizpideak deskribatzea, fabrikatzailearen irizpideak eta jarraibideak aintzat hartuta.

A2: Teknikak aplikatzeko produktuak aukeratzea eta prestatzea, baliabideekin eta mikropigmentazioarekin lortu nahi diren efektuekin erlazionatuz.

EI2.1 Mikropigmentazio-tratamenduetarako beharrezkoak diren pigmentuak, kosmetiko espezifikoak eta erabilera topikoko sendagarriak aukeratzeko irizpideak deskribatzea.

EI2.2 Tratamendua aplikatzeko moduak eta erabiltzen diren baliabide teknikoak erlazionatzea lortutako emaitzen intentsitate- eta asetasan-efektuekin, iraupenarekin eta denboran duten bilakaerarekin.

EI2.3 Tratamendua aplikatzeko kasu praktiko batean, azaltzea parametro hauek nola eragiten dioten elkarri intentsitate-efektu jakin bat lortzeko eta emaitzak denboran duen bilakaeran:

- Orratz-mota.
- Dermografoaren abiadura eta potentzia.
- Norabidea, mugitzeko teknika eta presioa.
- Aukeratutako pigmentuen nahasketa.

A3: Arrisku pertsonalak eta mikropigmentazio-prozesuetan erabiltzen diren baliabide, ekipo eta produktuak prebenitzeko neurriak eta segurtasun-neurriak aplikatzea.

EI3.1 Osasunerako arriskuak prebenitzeko bezeroa eta profesionala babesteko hartu beharreko neurriak azaltzea.

EI3.2 Hondakinak kudeatzeko jarraitu beharreko arauak deskribatzea.

EI3.3 Tratamenduetan erabiltzen diren tresnak, gehigarriak eta aparatuak esterilizatzeko, desinfektatzeko, ontziratzeke eta biltegitratzeko prozesua deskribatzea, araudia eta arriskuak prebenitzeko segurtasun- eta higiene-neurriak kontuan hartuz.

Edukiak

1. Segurtasuna eta higiena mikropigmentazio-prozesuetan.

- Mikropigmentazio-prozesuetako garbiketa, desinfekzio eta esterilizaziorako jarduera-protokoloak.
 - Asepsia eta antisepsia.
 - Desinfekzioa.
 - Esterilizazioa.
 - Esterilizazio-prozedura.
 - Esterilizazio-prozesuaren kontrolak.
- Gaixotasun infekzioen garrantzia profesionala.
- Mikropigmentazioan zuhurtziagabekeriak eragindako arazoak.
- Odol bidez transmititzen diren gaixotasunak.

- Hondakinak manipulatzeko babes- eta higiene-arauak.

2 Ekipoak, instalazioak eta materialak.

- Mikropigmentazio-establezimenduen lege-eskakizunak.
- Mikropigmentaziorako ekipo eta materialen lege-eskakizunak.
- Instalazioak eta altzariak: eskuak garbitzeko konketa duen kabina, ohatila, taburetea, orga edo mahai osagarria, sendaketa-orga eta beste batzuk.
- aparatua dermatografoa, nahasgailu-homogeneizagailu-diseinagailua, detektagailu-neurgailua eta desentikortzailea.
- Gehigarriak, tresnak eta osagarriak: orratzak, tips buruak, haga nahasleak, pipeta xurgatzaileak, tratamendu-erretilua eta beste batzuk.
- Asepsia-, desinfekzio- eta esterilizazio-metodoak aplikatzea.

3 Mikropigmentaziorako produktuak.

- Pigmentuak eta koloratzaileak:
 - Lege-eskakizunak.
 - Hautatze-irizpideak.
 - Zenbait kanpo-eragileren aurreko (laserra, eguzki-erradiazioak, erresonantzia magnetikoa, produktu kimikoak...) erreakzioak.
 - Espezifikazio teknikoak.
 - Pigmentuen ezaugarri kimikoak.
 - Prestatzeko moduak.
 - Eszipienteak.
 - Pigmentuen eta larruzalaren arteko interakzioa, eta horrek denboran izaten duen bilakaera.
- Produktu espezifikoak:
 - Kosmetikoak: garbigarri intentsiboa, traumaren ondoko higiena, labaingarria, zigilatzailea eta beste batzuk.
 - Mikropigmentazioan aplikatzen diren aplikazio topikoko sendagarriak eta farmaziako produktuak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Beltzarantzea, makillajea eta depilazio aurreratua.